

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 17ko 51/2018 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretua aldarazi duena.

Uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretuak Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzen ditu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea onetsita, Espainiako ordenamendu juridikora ekarri dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 214/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak. Hori dela-eta, Foru Dekretua aldatu behar da Legean xedatu dena oinarri hartuta.

Bizkaiko Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Hautaketari, Antolaketari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. artikulua Bizkaiko Foru Aldundiari eratziki dio Foru Aldundiak dituen foru sailen egitura organikoa eta antolaketako barne erregelamenduak onesteko eskumena.

Foru Arau horren 60. artikuluan ezarrita dagoenez, Foru Aldundiari dagokio, kasuan kasuko foru diputatuak proposatuta, foru sail bakoitzaren egitura organikoa eta erregelamendu organikoak onestea.

Foru Dekretu honen bidez, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 13ko 39/2015 Legean ezarritako arautze onaren printzipioei eman zaie erantzuna. Bizkaiko Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan daude jasota printzipio horiek. Bestalde, Dekretuaren 14. artikuluan xedatuta dagoenez, egin beharreko txostenak eman dira.

Azkenik, Foru Arauaren 14.1. artikuluan dekretuak emateko eta horiek argitaratzeko ahalgaitza emateko eskumena eman dio ahalgaitza nagusiari.

Hori dela bide, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2018ko apirilaren 17ko bileran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDEATZEN DUT:

Artikulu bakarra. — Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretuaren aldaketa. Honela idatzita geratu da

Bat

Aldatu egiten da 4. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. — *Eskuraketa zentralizatukotzat jotako ondasunak, obrak eta zerbitzuak*

Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak izango du Foru Dekretu honen II. eranskinean zehazten diren eskuraketa zentralizatuko ondasunen, obraren eta zerbitzuen espedienteak kudeatzeko ardura.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eguneratu eta onetsiko dira Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren eskuraketa zentralizatuko ondasunen, obraren eta zerbitzuen zerrendaren aldaketak.

Soilik Foru Aldundiarentzat deituriko kudeaketa zentralizatuko ondasunen, obraren eta zerbitzuen kontratazio-espedienteetan, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako



netarako Sailari atxikitako kontratazio mahai zentrala izango da aurrerantzean ere Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio organoari laguntza tekniko espezializatua emateko kide anitzeko organoa.»

Bi

Aldatu egiten da 5. artikulua 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Honelaxe eratuko da Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala:

— Presidente titularra:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzuen eta Udal Harremanen Zuzendariordetza Nagusiaren titularra.

Ordezkoak: Funtzio Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiaren edo Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Aldundiaren kontratazioaren arloan eskumena duen Zerbitzuko burutzako arduraduna.

— Kideak:

- Kontratazioaren arloan eskumena duen Zerbitzuko burutza.

Ordezkoak: Kontratazioaren arloan eskumena duten Zerbitzuko ataletako edozeinen burutza, kontratazioaren aholkularitza juridikoaren arloan eskumena duen atalekoa izan ezik, edo Zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikaria.

- Fiskalizazioaren arloko Zerbitzu eskuduneko burutzako titularra.

Ordezkoak: Fiskalizazioaren arloan eskumena duen Zerbitzuko aurrekontuen eta ekonomiaren kontrolerako eginkizunak dituen goi-mailako teknikaria.

- Kontratazioaren Aholkularitza Juridikoaren arloan eskumena duen Ataleko burutza. Aholkularitza juridikoko eta idazkaritzako eginkizunak hartuko ditu bere gain kideak.

Ordezkoak: Zerbitzu horri atxikitako goi-mailako teknikaria edo kontratazioaren arloan eskumena duten Zerbitzuko beste atal batzuetako edozein burutzako titularra».

Hiru

Aldatu egiten da 8. artikulua 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«Kontratazio espedientearen xedeko arloetatik teknikoki eskumena duen Foru Aldundiko Sailak egingo ditu Oinarri Teknikoen Agiria, edo hala denean, hari atxikitako erakundeetako teknikariak».

Lau

Aldatu egiten da 10. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«10. artikulua.— *Erosketa taldeak*

Baldin eta Foru Sektore Publikoko erakundeek, Lurralde Historikoko udal batek, haren menpeko erakunde instrumentalak, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitako mankomunitateak edo partzuergoak interesa jakinarazten badu II. eranskinean jasota ez dauden ondasunen, obren edo zerbitzuen kontratazio prozedura abiarazteko, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak eskaera hori aztertuko du. Azterketa horren ondorioz prozeduraren lizitazioa egokia dela ondorioztatzen bada, bere plataforma telematikoa erabiliko du interesa beste erakunde batzuei jakinarazteko, erosketa taldea sortzen laguntzeko.

Baldin eta erakunde interesatu gehiago badago eta erosketa taldea sortzen bada, kontratazio espedientea hasiko du Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak».



Bost

Aldatu egiten da I. Eranskina, eta honela geratzen da idatzita:

«I. ERANSKINA

**BIZKAIKO KONTRATAZIO ZENTRAL FORALAREN ESKURAKETA
ZENTRALIZATUKO SISTEMARI ATXIKITAKO HITZARMEN EREDUA**

Bilbon,(e)koren ...(e)(a)n.

BILDURIK:

Alde batetik (izen-abizenak) Bizkaiko Foru Aldundiko (kargua) den aldetik, haren izenean eta ordezkartzan jarduten duena eman zaizkion atxikipenak direla bide.

Bestetik (izen-abizenak), (erakundea)..... (kargua) den aldetik, haren izenean eta ordezkartzan jarduten duena eman zaizkion atxikipenak direla bide.

Alde biek, bakoitzak duen ordezkartzan, nahikoa ahalmen aitortzen diote elkarri Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren Bizkaiko Foru Aldundiko eskuraketa zentralizatuko sistemari atxikitzeke hitzarmen hau sinatzeko eta haiek ordezkartzen duten pertsona juridikoa behartzeko termino beretan.

Hori dela bide,

AZALTZEN DUTE:

Lehena: Bizkaiko Foru Aldundiak, 2016ko uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera onetsi zuen, Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio organoei eta Sektore Publiko Foraleko, Lurralde Historikoko udal-letako eta haien menpeko erakunde instrumentalei, mankomunitateei eta partzuergoei laguntzeko organoa den aldetik, betiere kontratazio sistemari eurek nahita atxikitzen badira.

Zehazki, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak laguntza emango die erakunde horiei ondasunen, obren eta zerbitzuen kontratazioetan, baldin eta, beren berezitasunak direla-eta, eskuraketa zentralizatuko sistemari atxikitako erakunde guztiek erabiltzeko modukoak badira.

Bigarrena: Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala sortuta, aipaturiko kontratuetan baldintza ekonomikorik onenak lortu nahi dira eta, horren ondorioz, txikiagoa izango da bideraturiko kontratazio zentralizatuko sistemari atxikitako erakundeen gastu publikoa. Aldi berean, administrazio-izapidetzeak erraztuko dira ondasunen, obren eta zerbitzuen eskuraketan, aldi berean gardentasuna eta segurtasuna indartuta kontratazioan.

Hirugarrena: Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren funtsezko xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretuaren arau-eremua osatzen duten erakundeei laguntzea beharrezko ondasunen, obren eta zerbitzuen kontratazioan. Hartara, kostuak aurreztu, eskuraketa denborak gutxitu eta izapidetzea erraztea ahalbidetzen duen sistema bideratuko da.

Laugarrena: erakundeak (adierazi erakundea), (e)ko (adierazi data)erabakiaren bidez (adierazi erabakia hartu duen organoa), Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralean gauzaturiko eskuraketa zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki du.

Horrenbestez, atxikitzeke hitzarmen hau izenpetzen dute sinatzaileek, honako klausula hauen arabera:

Lehena. – Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da.....(erakundea) Bizkaiko Foru Aldundiko eskuraketa zentralizatuko sistemari atxikitzea eta, beraz, ondasunen, obren eta zerbitzuen



kontratazioa egin ahal izango da Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren bidez, bukatu-ko esparru-akordioetan indarrean dauden baldintzetan eta prezioetan.

Sistemari hasieran atxikitze horrek ez dakar kontratazio guztiak Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren bitartez egin beharra. Izan ere, (erakundea) sistema hori erabili ahal izango du ondasun obra eta zerbitzu guztietarako edo horien zati baterako.

.....(erakundeak) ondasunak, obrak eta zerbitzuak eskuratzeko esparru-akordioa adierazi beharko du; izan ere, horri atxikitzekotan da. Esparru-akordioaren indarraldi osoan izango du balioa atxikitzeak.

Bigarrena. — Bizkaiko foru aldundiaren betebeharrak

Ondasunak, obrak edo zerbitzuak egoki hautatzeko modua errazteko, hauexek egingo ditu Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak:

1. Irizpideak bateratuko ditu kontratazio publikoko zentralizaziotik espero den eraginkortasuna hobetu, administrazio izapideak gutxitu eta uniformetasunerako helburuak lortzeko.

2. Erakundeen ondasunen, obren eta zerbitzuen kontratazio beharrak aztertuko ditu eta eskuraketa zentralizatuaren gainean deklaratu beharreko ondasunen, obren eta zerbitzuen inguruko proposamenak egingo ditu, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitako erakundeen multzorako interesekotzat jotzen direlako, baita erakundeetatik datozen zentralizazio proposamenak aztertu ere.

3. Ondasun, obra edo zerbitzu mota kontratatzeke esparru-akordioa izapidetzeko asmoa jakinaraziko die erakundeei.

4. Sistemari atxikitzeke asmoa jakinarazi duten erakundeetatik jasoko ditu erakunde horiek egoki irizitako gogoetak, baita gastuaren aurreikuspenari buruzko informazioa ere, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak kasu bakoitzean ezarritako epearen barruan, zertarako-eta..... (erakundea) beharrezko informazioa emateko, kontsumoak eta Oinarri Teknikoen Agiria egiteko garrantzizkoak diren beste datu batzuk zehazte aldera.

5. Bukaturiko akordioak jakinaraziko dizkie sistemarekin bat egin duten erakundeei, Oinarri Teknikoen Agiriarekin eta Administrazio Klausula Berezien Agiriarekin batera, baita esparru-akordio horrek indarrean jarraitu bitartean izan litezkeen aldaketak ere.

Nolanahi ere, informazio hori eskuragarri egongo da adjudikaturiko ondasunen, obren eta zerbitzuen katalogoak baliabide elektronikoen bidez kontsultatzeko, haien ezaugarriak eta aldizka gaurkoturiko prezioak barne.

6. Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitako erakundeen kontsultei eta gora-beherei emango die erantzuna.

7. Eginiko kontratazioei buruzko analisi egokiak egingo ditu, emaitzak kontratazio horri atxikitako erakundeei jakinaraziz.

Hirugarrena. — Erakundearen konpromisoak

..... (erakundearen) betebeharrak dira:

1. Esparru-akordioa izapidetzeko asmoa jakinarazten bazaio, esparru-akordio zehatzari atxikitzea jakinarazi beharko du, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak eskaturiko epeetan.

2. Sistemari atxikiz gero, Oinarri Teknikoen Agiria idazten hartuko du parte, datuak erakundeari emanez eta, hala denean, egokituz jotzen dituen gogoetak proposatuz, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak horretarako ezarritako epeen barruan.

3. Ondasunak, obrak eta zerbitzuak eskuratzearen ondoriozko kontratuak izapidetzea, esparru-akordioaren arabera.

Salbuespenez, sinaturiko konpromisoan aipaturiko esparru-akordioan sartutako ondasunak, obrak, edo zerbitzuak antzematen direnean, ez du beharrik biltzen;



..... (erakundeak) Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari jakinarazi-ko dio hori, betiere ezaugarriak eta prestazio bereziak definituz eta kontratazioa sistema zentralizatutik kanpora jakinaraziz.

5. Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari jakinaraztea eskuraketa zentralizatuko kontratuak burutzean gertaturiko edozein gorabehera, neurri egokiak hartzeko eta, hala denean, kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritako erantzukizunak eskatzeko xedearekin.

Bereziki, kritikoak diren gorabehera teknikoak jakinarazi beharko ditu eta, beraz, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren esku-hartzea eskatzen dutenak eta kontratazio espediente berrien agiriaren ondorioetarako aintzat hartu beharrekoak.

6. Ondasunak, obrak eta zerbitzuak jasotzea, baina eskaeran agertzen diren ezaugarriekin eta prezioekin bat etorri behar dute. Horrez gain, prezioa eta kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoekin bat etorritik egingo diren balizko berrikuspenak ordaindu beharko ditu.

7. Atxikitako esparru-akordioaren baldintzak denbora eta forma egokian ez bete-zearen ondoriozko erantzukizunak bere gain hartzea, eta bereziki, aginduzko adminis- trazio kontratua gauzatzeari dagozkionak.

Laugarrena. — Hitzarmenaren indarraldia eta eguneraketak

Lau urteko indarraldia du Hitzarmenak. Epe hori urtero luzatuko da automatikoki, gehienez lau urte gehiagoz. Alabaina, administrazio parte-hartzaileetako edozeinek beren beregi salatu ahal izango du hitzarmena, berau azkendu baino lau hilabete lehenago gutxienez.

Bosgarrena. — Hitzarmena desegiteko kausak eta ondorioak

Hitzarmen hau desegiteko kausa izango da alde biek hala erabakitzen badute eta horietako batek baldintzak larriki betetzen ez baditu.

Hori guztia gorabehera, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitzeak akordioa noiznahi salatu ahal izango dute alderdiek, baina horren berri emango dute aurretik gutxienez hiru hilabete lehenago.

Hitzarmen hau salatzen bada, esparru-akordio bakoitzean zehazturikoaren arabera eraenduko dira salaketaren unean inskribaturiko esparru-akordioak.

Hitzarmena desegiten bada, salaketaren ziozko azkentzea barne, eten egingo dira azkentzearen ondorioak harik eta (erakundeak) eskatuta Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak eskaturiko ondasunak, obrak eta zerbitzuak jaso eta guztiz ordaindu arte.

Seigarrena. — Auziak ebaztea

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren eskumena izango dira hitzarmen hau aplikatzearen, interpretatzearen eta betetzearen inguruan ager litezkeen auziak.

Eta bat datozela frogatzeko, bi aldiz sinatzen dute hitzarmena parte hartzaileek, goi-buruan adierazitako tokian eta datan».

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenago sinaturiko hitzarmenak egokitzea.

Foru Dekretu hau indarrean sartu baino lehen sinaturiko atxikitze-hitzarmenek lau urteko indarraldia izango dute hitzarmenak izenpetzen diren egunetik hasita, eta urtero luzatuko dira automatikoki lau urte gehiagoz gehienez.

Alabaina, edozein administrazio parte-hartzailek beren beregi salatu ahal izango du hitzarmena, berau azkendu baino lau hilabete lehenago gutxienez.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta gelditzen dira Foru Dekretu honetan xedaturikoaren kontrakoak edo bateraezinak diren lerrun berdineko edo txikiagoko artikulua, erabaki eta xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko apirilaren 17an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ